

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua funtzionatzeko, lehendabizi, aplikazio bat sortu beharko dugu, webgune batekin batera. Hauek sortutakoan, aplikazioa ezagutzera eman beharko dugu, irakasle zein ikasleek deskargatu ahal izateko. Horretarako, debaldeko konferentziak, publizitatea eta marketing kanpaina egingo ditugu. Gainera, sarean oso aktibo egongo gara. Izan ere, arestian aipatutako webgunea oso eguneratuta egongo da. Honetan, gaur egungo heziketaren inguruko gai interesgarriei buruz gauza ezberdinak publikatuko ditugu. Gainera, fisikoki ere, gure bezero potentzialei, postontzietan kartelak edo liburuxkak ere igorriko diegu. Modu honetan, bezeroak erakarriko ditugu eta horrela, irabaziak gero eta handiagoak izango dira.

Aplikazioa martxan dagoenean, irakasle eta ikasleengandik iritsitako informazioa bilduko dugu, prozesatu eta konparatuko dugu beste antzeko kasu batzuekin. Azkenik, gure ondorioak aterako ditugu gure bezeroak laguntzeko. Baina, honetaz aparte, hemen lortutako informazioa, hitzaldietan ere erabiliko dugu. Modu honetan, lehenago beste institutuetan izandako esperientziak partekatu ahal izango ditugu, beste ikuspuntu mota batzuk ikusi ahal izateko.